

Euskal
emakume
presokak

EGOERA

Euskal Herriko
Bilgune
Feministaren
laguntzarekin
osatutako dosierra





Emakumea izatea biritza arruntean berez zaila bada ere, are gehiago konpromiso politiko edo militante sakonak daudenean. Zer esanik ez konpromiso horiengatik espetxeratuta izaten bada emakumea.

Eguneroko lanaldi bikoiztua konstante bat da, gaur egun ere, emakume asko eta askorentzat. Gehientzat esango nuke, langabezi tasa emakumeen artean gizonena baino altuagoa ez balitz krisi garai honetan... Hori guztiari, gehitu iezaiozue politikan modu batean edo bestean aritzea, bereziki politika disidentean, errepresioaren mamua gainean beti. Egunak ez ditu hainbesterako orduak izaten, askotan! Baina emakume hauek lortzen dute orduak luzatzea...

Imajina ezazue zure konpromisoengatik espetxera bidaltzen zaituztela. Mundo arrotz, ezezagun batean sartzen zara. Etsai giroan bizitzera behartuta. Emakumea zara. Bigarren mailako izaki, hemen ere bai. Gainera, preso politiko zaren heinean, "status" berezikoa, salbuespeneko legediaren pean izango baitzaituzte.

Kalean zenituen ardura guztiak kalean geratu dira. Ama baldin bazara, kolpe batean, zure seme-alabekin harremanak erabat moztuta: ezingo dituzu laztandu, zaindu, maitatu, haiengandik pozak eta haserreak bizi, telefono dei murrizak eta ordu zitaleko aurrez-aurreko bisitekin konformatu behar zara. Zure beste senide, lagun, lankideekin, berdin. Familiarekin, bikotearekin edo bakarrik bizi, etxeko kontu guztiak besteen eskuetan utzi behar dituzu. Lantokian zenituen ardurak hor geratuko dira... bukatu gabeko proiektu bat, kontaktuak, pazienteak, ikasleak, tailerrean egiten ari zinen piezak. Ikasketak, moztuta, ea noiz, nola, jarraitzeko aukera izango duzun; gaztetxeko kontuak, nesken taldea, kirola, musika... dena etenda. Baita, nola ez, militantzia politikoan kalean zeneuzkan lanak, kezkak, eztabaidak, proposamenak, proiektuak.

Gainera, sakabanaketaren politikaren aplikazioaz, zure herritik oso urrun

egongo zara, beste kide batekin, edo bakarrik, erabat ezberdina den herrialde batean, nahiz eta zuk bertako espetxea besterik ez ezagutu. Asteburuetan, nerbioak eta kezkek senide zein lagunen bidaiak eta egoerengatik. Asteazken zehar, zuk sortutako dinamika batean sartuta, espetxeak ez baititu beste dinamiketan parte-hartzea uzten, zarenarengatik. Baina zu bizirik zaude, bizi nahi duzu, zure burua duintasunez mantendu.

Egunero, orduro, mundu zakar eta oldar horretan, zure izaera, zure konbikzioak, zure maitasunak, zure interesak elikatzen aurrera egiten duzu. Horretan datza zure indar nagusia. Denbora luzearen kudeaketa, zure barneko munduaren garapena, dira kudeatu ditzakezun gauza ia bakarrak. Espazio hauek zureak bihurtzen dituzu, eta kanpoan halabeharrez utzitako munduarekin lotura berriak sortzen lortzen dituzu.

Ez da batere erraza, ez. Zeren eta, gainera, ingurune fisikoa bera ez ditu emakumeak kontuan hartzen. Edo, hartzen dituenean, mendeetan zehar ikuspuntu patriarkaletatik eraikitako ereduak sostengatzeko da. Askotan, emakume presoak espetxe sistemarako traba besterik ez direla dirudi; hortik haienganako jarrera eskasa. Ikusiezinak nahi lukete.


Eskuarteetan duzun txostenak errealitate gordin hau azaldu nahi dizu. Datu eta gertaera zehatzekin hurbilduko zara emakume presoek pairatzen duten egoera gogorrera. Orokorrean txarra bada ere, euskal emakume presoen kasuan dezente okertzen da, erabaki politiko jakin batengatik, jarrera politiko mendeatzaile batengatik.

Lasaitasunez irakurri. Saiatu zure burua emakume presoen egoeran ikustarazten. Ireki zure burua, zure bihotza, hemen jasotakoari. Eta gero, eman pausua eta egin zure ekarpena, egunerokotasunean, egoera zakar honi bukaera jartzeko. Horretan, denok gaude interpelatuak. Hartu tren!

Emakumeak eta dispersioa

50 

50 



1 etxean preso

14 bakarrik

**36 estatu espainolean
(etxekoa kontuan hartuta)**

13 estatu frantsesean

1 Suitzan

“Ez-lekua”

Emakumeak, haientzako pentsatuak izan ez ziren espazioetan aurkitzen dira espetxeratuak. Hiru motatako presondegi ezberdindu ditzakegu emakumezkoen kasuan:

- ➔ **1. Gizonezkoen espetxeen barruan kokatutako modulu txikiak, unitateak edo departamentuak.** Emakume espetxeratuen kasuan ohikoena horrelako guneetan atxilo egotea da. (Adibidez, Martutene –Donostia- eta Iruñako kartzelak.)
- ➔ **2. Emakume espetxe txikiak, gizonezkoen espetxe handi edo “makro-kartzela” deiturikoen barruan.** (Adibidez, Soto del Real –Madril V-, Topas –Salamanca-, ...) Azken urteetan presondegi hauen kopuruak gora egin du nabarmen, eta horrekin batera, emakumezkoentzako espetxeratze eredu honek ere.
- ➔ **3. Emakumezkoentzako bakarrik diren presondegiak.** Hiru daude momentu hauetan: Alcalá de Guadaira –Sevilla-, Brieva –Ávila- eta Alcalá Meco emakumeak -Madril I-. Aipagarria da horietako bat bera ere ez zela emakumezkoentzako espetxe bezala eraikia izan.

Emakumeak ere, presondegietako legedian “ez-leku” batean aurkitzen dira ez baitituzte aipatzen, amatasunaz edo duten “izaera ezberdina” aipatzeko (hilerokoa, haurdunaldia ...) ez bada.

Zigor hirukoitza

1. Zigor soziala

Alde batetik delituaren ekintzagatik berarengatik (emakumeari dagokion rol pasiboa apurtzen duelako), baina bestetik, kartzelara sartzeko garaian familiaren zaintzarekin jarraitu ezin duelako eta beraz, berari egotzitako zaintzaile lana errotik utzi eta mantendu ezin duelako. Hau da, delitu bat egikaritzea emakumearekin bateraezina

dela pentsatzera garamatza gizarte patriarkalak, eta honelako ekintza bat burutu duen emakumea "anti-emakume" bezala ikustera bultzatu gaitu.

■ 2. Zigor pertsonala

Familiarekiko banaketa, baina batez ere seme-alabekiko banaketa oso traumatikoa izaten da ama-alaba gehientzako. Haurren banaketa edo galera honek, auto zigortze prozesu batean murgilduko ditzake emakume presoak.

■ 3. Zigor penala

Emakumeen kondenak betetzeko baldintzak gizonezkoarenak baina gogorragoak dira. Emakumeen kopuru murriztagoa aitzakiatzat hartuta, murrizketa edo debeku ugari pairatzen dituzte emakume presoek. Hiru arlo azpimarratzen daitezke: Dispertsioa eta hirugarren gradua lortzeko zailtasunak; Delitu kopuru txikiagoa egin arren emakumeek duten kondena urte kopuru altuagoa eta lana lortzeko zailtasunak.

Eta laukoitza...

EPPKko kideak normalean FIES-3 izaten dira, eta honen barruko murrizketak ezberdinak izango dira lehenengo edo bigarren graduan egotearen arabera. Kartzela bakoitzak ere murrizketa hauek aplikatzeko modu ezberdinak izango ditu. Baina laburbilduz, EPPK kideei komunikazioetan eragingo die haien FIES izaerak. Honek, dispertsio geografikoak sortzen duen isolamenduari, isolamendu komunikatibo bat gehituko dio. Preso politikoak lehen eta bigarren graduan egoten dira.

Emakumeek pairatzen duten isolamendua handiagoa dela azpimarratu behar da. Edozein emakumek (EPPKko kidea izan beharrik gabe) bizitzen duen egoera da dispertsioarena, hain zuzen, haientzako egokitutako kartzelak ez izaterakoan, sorterritik urrun dagoen beste kartzela batera bidaltzen dituztelako. Baina Preso

Politikoen kasuan oraindik larriagoa da egoera hau, edonora bidali baititzakete, eta kasu askotan, bakarrik egotera heldu izan dira EPPKko kideak. Momentu hauetan Espainiar eta Frantses estatuko kartzeletan hamar emakume dira espetxeetan beste kolektiboko emakumekiderik gabe daudenak, bakarrik alegia. Baina sakabanaketa ez da soilik geografikoa, kartzela barruan ere modulu ezberdinetan kokatu izan dituzte emakumeak (eta gizonezkoak ere), eta honek are eta isolatuago egotera eraman ditu. Emakumeak, gutxiago izaterakoan, haien artean isolatzea eta bakartzea gauzagarriagoa egiten da. Neskak bakarka edo binaka egonik, isolamendu edo bakartzearen zigorra gizonezkoak baina gehiago pairatzen dute.

“Emakume onak” sortzeko fabrika

Formakuntza tailer gutxiagotan parte hartzeko aukera izaten dute, eta dutenean, hauek genero rolaekin erabat lotutako tailerrak izaten dira: josketa, pelukeria, sukaldea ... Beraz, kartzelan emakumeek burutu ahal dituzten lan eta ikasketak (tailerren bidez eskaintzen direnak) emakumezkoaren rola birproduzitzeko, eta emakume presoak berrezteko erabiltzen dituzte. Hasieran aipatutako anti-emakumea dagokion tokian jartzeko erabiltzen dute ere lan-mundua kartzelan.

Honetaz gain, emakume preso politikoei, emakumezkoen espetxeetan dauden eskaintza eskasak are eta eskasago bilakatzen zaizkie, zenbait tailer eta jardueretan parte hartzea debekatzen baitiete.

Osasuna

Emakume espetxe ugaritan ginekologorik ez egotea salatu izan dute presoek. Honetaz gain, mediku baten artatzea behar izanez gero, zailtasun ugari dituzte orokorrean preso guztiek, baina gainera, gizonezkoen espetxeetan dauden emakumeek, bisitaldi murriztagoak, edo baldintza kaxkarragoak salatu izan dituzte.

Frantses estatuan, erosketa katalogoak maskulinoak direla salatu izan dute hainbat preso emakumek, eta adibidez, haientzako oinarrizkoak diren produktuak ezin dituzte eskuratu (tanpoi, konpresa,...) eta espetxean banatzen dizkietenak kalitate eskasekoak edo nahikoak ez direla adierazi dute.

Harremanak eta zaintza

Dispertsioaz gain, preso politikoek “bakartze soziala” pairatu behar izaten dute. Honek pertsona gisa garatu diren jatorrizko ingurune sozial eta kulturaletik bereizten ditu. Lehen aipatu dugun urruntze geografiko eta kartzela barruan ematen den modulu arteko banaketaz gain, bisita murriztuak, bisitaren denbora mugatua, komunikazioen interbentzio etengabea... ekarriko dizkio presoari zein bere senide eta lagunei. Bai bikote harremanak, zein harreman sozial eta familiar guztiak, modu egoki batean burutu ahal izateko kartzelak ematen dituen komunikaziorako aukerak ez dira nahikoak, eta EPPKko kideentzako oraindik eta murriztagoak izateak oraindik eta zailago bihurtzen du harreman afektiboen garapena.

Kartzeletako egoera dela eta, kasu askotan, bikoiztuta egon behar izaten dute presoek (emakume zein gizonak) eta honek intimitatearen galera osoa eragiten die, haien sexualitatea garatzeko, edo auto-plazera lortzeko bideak asko oztopatuz.

Frantses estatuan gainera sexu harremanak ez dira onartuak eta bisitetan “ezkutuan” ibiltzera derrigortuak dira, harreman afektibo eta sexual egoki bat garatzeko aukera osorik oztopatuz.

Gurasotasuna

Ez da arritzekoa legedi patriarkal batean, aurreikusten direnak amatasun moduluak izatea eta ez aitatasun moduluak. Kritika eta hausnarketa zabalagoa behar duen gaia da, baina oraindik ere ardurak noren gain jarri nahi diren legez arautua egoteak, gizartearen eta sistemaren argazki bat ateratzen lagun gaitzake. Badaude Unitate Familiarrak deiturikoak non preso dagoen bikotea

eta haren umea elkartu daitezkeen, baina preso politikoek, ezin dute Espainiar estatuan dagoen modulu bakar honetan parte hartu.

Hasteko, dispertsioaren eragina aipatzea ezinbestekoa da. Euskal Herritik "gertuen" dagoen amatasun modulua Aranjuezekoa da, 496 kilometrotara dagoena. Azpimarratzekoa da haurra ez dagoela preso, eta beraz, "nahi duenean" espetxetik atera eta sartzeko baldintzak eduki beharko lituzkeela. Hau bermatzeko, ezinbestekoa da senideak atearen beste aldean egotea. Beraz, dispertsioaren eragina handia izango da, senideek ezingo baitute espetxera hurbildu nahi bezain beste. Dispertsio hau espetxean ama diren emakume gehienei eragingo die, Espainiar estatuan momentu hauetan hiru amatasun modulu daudelako bakarrik, Madrilekoaz gain, Valentziako Picassent eta Granadako Albolote.

Lau ume euskaldunak daude momentu honetan 2 espetxetan, 1 Aranjuezen eta 3 Valentzian.

**Euskal preso,
iheslari eta
deportatuen
eskubideen aldeko
sare herritarra**

**Red ciudadana a favor
de los derechos de
lxs presxs, exiliadxs y
deportadxs vascxs**

Réseau de citoyens en
faveur des droits des
détenus, des exilés et
des déportés basques

Citizens network for
the rights of Basque
prisoners, exiles and
deportees



SARE

Zaldiaran plaza 8, behea
01012 GASTEIZ (Araba)
t. 945.561.293
w. www.sare.eus

